

Lenin: ohar batzuk nazio-arazoaz

Joxe Azurmendi
Manolo Pagola

Estatutik Estatura, sistema ekonomiko eta politiko batetik bestera, nazio eta etnia minoritarioen arazoek modu desberdinak hartzen dituzte. Nazio-arazo bera ez da arazo berdina Jugoslavian eta Italian, Espainian ala Soviet Batasunean.

JAKINEk (2, 1977) «nazio ukatuak Europan» argitara zuen, egiaz sartaldeko Europa —kapitalistara, liberalera— mugatua, «herrialde sozialisteko nazionalitateak beste zenbaki baterako utzi»az. Agian ez bait dago denak batera tratatzerik, sartaldeko «nazio ukatuen» arazoak eta sartaldekoe-nak, sistema arras diferentetakoak. Sartaldeko nazio minoritarioei gagozkiela, Lenin gogoan eduki beharre dago batik-bat.

Sortaldeko nazio minoritarioen arazoak, espreskiago, Soviet Batasuneko edo «Errusia»koak, ez dira Leninekin hasi eta ez Leninekin bukatu. Hagitz lehenagokoak dira Lenin baino. Leninez geroztik ere soluzio bila dabilta. Baina ekialdeko nazionalitateen egungo egoerari nazio-arazoaren «soluzio leninista» ohi deritzanez, egungo nazionalitate politika Soviet Batasunean Lenin baitan inspiratzen denez, ofizialki bederen, Soviet Batasuneko nazio-arazoaren azalpenak nabitaez Lenin gogoratuz hasi behar du.

Halare ez da gure asmoa orai Leninen azterketa sakonik egi-
tea, hitzaurretxo teoriko-historiko moduan ohar batzuk eskain-
tzea baizik. Oharrok bi partetan banatzen ditugu: teoriari bu-
ruz, praxiari buruz (Soviet Batasunaren antolaeran, Iraultza on-
doren). Leninen beraren textu zenbait ekarriko dugu, argigarri
izan daitekeelakoan desarroilo historikoa eta egungo nazio-ara-
zoen sustrai teoriko eta praktikoak hobeki ulertzeko. Izan ere,
esprikazio sinpleegia dirudi, egungo nazio-arazoak Soviet Bata-
sunean «desbideratze stalinista» omen zelakoari bakarrik egoz-
tea, ustegabeko sorginkeria edo malefizio akzidental bati bezala,
kontraesanak sistemaren barrutik —hots, sistemaren printzipioe-
tatik, Estatuaren antolaera politiko eta ekonomikotik, etab.—
esprikatu ordez. Problemaok ez dira kasualitatez agertzen.

OHAR BATZUK TEORIAZ (printzipioez)

Erakunde estatal bat daukagunean, eta nazio bat baino
gehiago haren barruan, desberdinak beren artean (Estatu plu-
rinazionala), zein izan daiteke jokabide hoberena: separatzea eta
nazio bakoitzak bere erakunde estatal berjabea burutzea? Estatu
berean elkarrekin jarraitzea, federazio edo konfederazio gisa?
Elkarrekin jarraitzea eta nazio guzian asimilaketara eta fusiora
iristea? Arazoa hori da.

I. — Autodeterminazioa

a) Lenin nazioen autodeterminatzeko eskubidearen alde dago beti:
separatzeko eskubidearen alde.

b) Baina separatzeko *eskubidearen* alde egonez, kontrako efektua bi-
latzen du *praxian*: nazioen fusioa.

Nazioen fusioak ez du bortxaz eragina izan behar: nazioek berek joan
behar dute fusiora.

- a) Nazioen autodeterminazioaz, haiek elkarte nazional
arrotzetatik Estatu gisa separatzeko eskubidea ulertzen
da, Estatu nazional burujabeen sortzea ulertzen da
(1914). (*Du Droit des nations à disposer d'elles-mê-
mes* in *Oeuvres* t. 20, Editions Sociales-Editions du
Progrès, Paris-Mosku, 419 or.).

Sozialismo garaileak demokrazia integrala eraiki behar du derrigorrez eta, beraz, ez bakarrik berdintasun teoriko bat (aldarrikatu) nazioen eskubideen kontuan, baizik eta, beren buruaz nahi dutena egiteko nazio zapalduen eskubidea aplikatu, hau da, separazio politiko librerako eskubidea. Iraultza bitartean eta garai-penaren ondoren, beren ekintza guztietan nazio zapalduak askatuko ez lituzketen eta hauekiko beren harremanak elkartasun librearen oinarri gainean jasoko ez lituzketen alderdi sozialistek —eta elkartasun librearen formula, separatzeako eskubidea onartzen ez badu, gezurtia da— traizioa egingo liokete sozialismoari (1916). (*La Révolution socialiste et le droit des nations à disposer d'elles-mêmes* in *Oeuvres*, t. 22, 155-156 or.).

- b) Erraz ulertuko da Errusia osoko marxistek, marxista errusi-haunditarrak buru direla, nazioen separatzeako eskubidea defenditzeak ez duela ukatzen inolaz ere nazio zapaldu honetako edo hartako marxistek separazioaren kontrako propaganda egitea; *dibortziatzeako* eskubidearen onarpenak, kasuren batetan, dibortzioaren kontrako propaganda ukatzen ez duen bezala (1914). (*Du Droit des nations à disposer d'elles-mêmes* in *Oeuvres*, t. 20, 478 or.).

Nazio zapalduentzat autodeterminatzeko eskubidea eskatzen badugu, *hau da*, independentzia, *hau da*, separatzeako eskubidea, ez da zatiketa ekonomikoaren bila gabiltzalako eta Estatu txikiak sortzea nahi dugulako; alderantziz, Estatuak haundiak nahi ditugulako da; nazioen hurbilketaren eta areago oraindik fusioaren alde gaudelako da, baina benetako oinarri demokrati-koaren eta internazionalistaren gain; eta hau pentsaezina da separatzeako askatasunik gabe. (1915). (*Le prolétariat révolutionnaire et le droit des nations à disposer d'elles-mêmes* in *Oeuvres*, t. 21, 430 or.).

Gu nazioen fusioaren alde gaude, baina *gaur* ezinezkoa da, separatzeako eskubiderik gabe, indarka, anaxio bidez ezarrিতako fusiotik borondatezko fusiora igarotzea (1916). (*Une caricature du marxisme et à propos de «l'économisme impérialiste»* in *Oeuvres*, t. 23, 75 or.).

II. — Nazioen batasuna eta fusioa

Leninen arabera, nazioak lotuz eta batuz doaz munduan, geroz eta batasun haundiagoetan, lotura herstuagoz. Eta historiaren martxak —Leninen ustez— horixe agintzen duenez:

- a) nazioei berei hala komeni zaie
- b) proletalgoari, bereziki, hala komeni zaio.

(Ondoko testu denak 1913koak dira).

- a) Begira Errusia eta errusi-haunditarren jarrera ukrainiarrekiko. Noski, bada, edozein demokratik, zer esanik ez marxistak, ukrainiarrek jasan behar dituzten humilazio ikaragarritzko horien kontra borroka gogor egingo du eta eskubide-berdintasun oso-oso errebindikatuko du haien alde. Baina zuzen-zuzen traizioa egitea izango litzateke sozialismoari eta politika begi-motza egitea, ukrainiarren «egiteko nazional» burgesen beren aldetik begiraturik ere, proletalgo ukrainiarren eta proletalgo errusi-haunditarren artean, Estatu bat-berraren barruan, egun dauden elkartasuna eta aliantza kraskatzea. (*Notes critiques sur la question nationale in Oeuvres*, t. 20, 23 or.).
- b) Langile errusi-haunditarrek eta ukrainiarrek elkartasunean —are, batasun eta fusio organiko herstuenean, Estatu berbatetan bizi diren arte— behar dute defendatu mugimendu proletarioaren kultura komuna edo internazionala; tolerantzia guzira erakutsiz propaganda-rakoan erabiltzen den hizkuntza kontuan eta propaganda horri dagozkion *detailezko arazo* lokal edo nazional hutsetan. *Marxismoaren eskakizun absolutua da hori*. Edozein ahalegin nazio bateko edo besteko langileen artean separaziorik sortzeko, edozein atake «asimilazionismo» marxistari, edozein kontrajarpen, proletalgoaren arloetan, kultura nazional baten artean —osotasun gisa harturik— eta bakar eta banaezintzat hartutako beste kultura baten artean, etab., nazionalismo *burgesean* inspiratzen dira denak eta absolutuki behar-beharrezkoa da haren kontra kupida gabe borrokatzea. (*Ibid.* 26 or.).

Zehazkiago ikusi beharra dago, zer den, historiak omen dakarren eta nazioei berei nahiz proletalgoari komeni zaien batasun hori. Hiru puntu bakarrik seinalatuko dugu: historiak *zentralismoa*, nazioen *asimilaketa*, nazioen *fusioa*, esijitzen duela.

A) Batasuna = zentralismoa

Prozesu historiko bateragilearen arabera, premia ekonomikoek eraginda, Estatuak zabalduz, haundituz eta zentralizatuz doaz, nazio edo herri diferente geroz eta gehiago bilduz. Eta prozesu guziz positiboa da hau:

- a) zentralismoa, historiak nahi du
 - b) proletalgoak ere zentralismoa nahi du.
- a) Nazioek beren buruen jabe izateko, hots, separatzeko eta Estatu nazional berezia konstituitzeko duten esku-bideaz, aparte arituko gara. Baina —nazio desberdinek Estatu bakarra osatzen duten bitartean eta anarteraino, marxistek ezein kasutan ere ez dizute goratuko, ez printzipio federatiborik, ez deszentralpenik. Estatu haundi zentralizatuak izugarritzko progresu historikoa adierazten du, zatiketa erdi-arotiarretik etorkizuneko mundu osoaren batasun sozialistara bidean. (*Ibid.* 39 or.).
- b) Marxistak, egia esan, federapenaren eta deserdirapenaren kontrarioak dira, arrazoi simple honexegatik: alegia, kapitalismoaren desarroiloak, Estatuak ahalik haundienak eta ahalik zentralizatuenak izatea galdetzen duela. *Kondizio berdinetan, proletalgo kontzientziatua beti Estatu haundiagoaren alde egongo da.* Partikularismo erdi-arotiarren kontra borrokatuko da eta begi onez ikusiko du lurralde zabalen batasun ekonomikoa indartzea, horien gainean azkarkiago desarroilatu ahal izango bait da proletalgoaren borroka burgesiaren aurka. (*Ibid.*)

B) Batasuna = asimilaketa

Nazioak, prozesu historikoan, berdinduz eta asimilatuz doaz Leninen ustez. Eta Leninek prozesu guziz positibotzat jotzen du nazioen asimilaketa prozesu hau:

- a) nazioen asimilaketa guziz positiboa da ikuspide historiko batetan.
 - b) proletalgoaren ikusguneetik ere guziz positiboa da.
- a) Aurreritzi nazionalistek itsutu ez duten edozeinek ikusi behar du, aurrerapen historiko izugarria dela kapitalismoaren nazio asimilazio prozesua, kantoin mutur desberdin galduen rutina nazionalaren suntsimendua, Errusia moduko lurralde atzeratuetan bereziki. (*Ibid.* 22 or.).

- b) Proletalgo errusi-haunditarraren eta ukrainiarraren «asimilazioa» zalantza gabeko gertakaria da. Eta gertakaria *progresista* da, *eztabaidarik gabe*. (*Ibid.* 24 or.).

C) Batasuna = fusioa

Historiaren filosofia (edo zientzia) marxistan, desarroilo historikoaren helburua nazio guzien fusioa da:

- a) nazio guzien fusioa da marxismoaren helburua
 - b) nazio guzien fusioa da proletalgoaren xedea
- a) Adiskidazinezkoa da marxismoa nazionalismoarekin, «justu»enarekin ere, «garbi»enarekin ere, finenarekin eta zibilizatuenarekin ere. Nazionalismo ororen lekuan marxismoak internazionalismoa ezartzen du, *nazio guzien fusioa batasun supremo batetan*. (*Ibid.* 27 or.).
 - b) Nazionalismo burgesaren printzipioa, arrunt edozein nazioaren desarroiloa da eta hortik dator etorri nazionalismo burgesaren jite eskusibista, azken gabeko istilu nazionalak gero. *Proletalgoak*, alderantziz, edozein nazioaren desarroilo nazionala defendatu nahi izatetik urrun, erne jartzen ditu masak ilusio horien kontra, elkartrukaketa kapitalisten askatasunik osoena aldarrikatzen du eta *ospatu egiten du edozein nazio asimilaketa*, bortxaz egindako edo pribilejioen bidez eragindako asimilaketa salbu. (*Ibid.* 28 or.).
- Nazionalismoa kotsakratu, «neurri justuetara» mugatuz, nazionalismoa «konstituitu», Estatu partikularren organismo bidez nazio guzien artean hesi sendo eta iraunkorrak eraiki: horra autonomia nazional kulturalaren oinarri ideologikoa eta edukina. Ideia hau burgesa da aldenik alde eta okerra aldenik alde. *Proletalgoak* ezin eman diezaioke bere sostengua nazionalismoaren ezein ere kotsakraziori; alderantziz bai, *berrezitasun nazionalak xabutzeko* eta hesi nazionalak eraisteko balio duen *guzia sostengatzen du*, nazionalitate artean loturak herstu eta herstuagotzen dituen *guzia, nazioen fusiora daraman guzia*. Bestela jokatzeari, burgesia ttipi nazionalista erreakzionarioaren atzetik errenkan jartzea da. (*Ibid.* 28-29 or.).

ADIBIDE BAT agertzen dugu hemen eta, hain zuzen, eremu kulturalakoa hautatu dugu, hautatzen hasi eta, JAKINen zenbaki honetan azaltzen diren egungo problemengatik eta guk euskararekin eta espainolarekin

(gaztelaniarekin) darabilgun problemagatik. Estatu espainolean, zer duda, gaztelania beste hizkuntzen gainetik gailendu da. Zentralismoaren presioa, zampaketa, etab. aparte, hala behar ote du, progresoren izenean? Soviet Batasunean lur eta herrialde, nazio eta jende txit desberdinak bizi dira, baina, ezagunki, errusiar nazioa da de fakto bortitzena. Desarroilo historikoak, hots, asimilaketa edo fusio prozesu aurrerakoiak, aurrerantzean ere errusiera beste mintzairen gainetik nagusitzea adierazi nahi ote du? Leninek ez du zalantzarik egiten baietz, nahiz eta metodoetan ez konforme egon liberal zentralistekin.

Errusiera hizkuntza bikaina eta indartsua da, esaten digute liberalek. Errusiako periferiako biztanle guziek horrelako hizkuntza bikain eta indartsua ikastearen kontrarioa, nola izango zara, bada? Ez al duzu ikusten alogoen literatura aberastu egingo duela errusierak eta goreneko kultur balioetara iristeko posibilitatea emango diela? Bai, jaun liberalak, hori dena egia da, erantzuten diegu guk. Badakigu, Turgeniev eta Tolstairen hizkuntza bikaina eta indartsua dela... Eta guk nahi dugu, begien bistakoa da, Errusiako biztanle bakoitzak hizkuntza erruso bikain hau ikasteko aukera izan dezala. Guk nahi ez duguna inor behartzea da. Uste dugu hizkuntza erruso bikain eta indartsuak ez duela *egurraren amenazo* beharrik, besteek ikas dezaten. Lanak eta bizitzak eskatuta, errusiera ezagutzeko premia dutenek, egurrik gabe ikasiko dute. Egurrak, gainerakoan, hizkuntza bikain eta indartsua beste talde nazionaletara sartzeara eragotzi besterik ez du egingo (1914). (*Faut-il une langue officielle obligatoire?* in *Oeuvres* t. 20, 68-69 or.).

III. — Konklusioa

Konklusioa berez ageri da: sozialismoak muga nazionalak oro desegin behar ditu (politikoak ezezik, sozialak, kulturalak, hizkuntzazkoak, etab. ere bai), nazio guzien fusioa nazio bakar batetan eraginez. «Langileen aberririk ezak» adiera radikal eta positibo bat hartu dizu Lenin baitan, sozialismoaren hastapenetan zuen esanahitik franko diferentea.

Aberriaren arazoa ez dago gaurko gerraren izaera historiko konkretua ahaztuaz planteatzerik. «Langileek ez dute aberririk». Konprenitzen da sozialismoaren egia hau onartzeko eta egun-bistan berari aurpegi emateko oportunisten beldurra. Mugimendu sozialistak ez dauka

aberriaren koadro zaharrean irabazterik. Gizartearen forma berriak, geroagokoak, sortzen ditu, zeinetan nazionalitate *guztietako* masa langileen behar bidezkoak eta nahikunde progresistak beteko bait dira batasun internazionallean, eta *egungo muga nazionalak oro suntsitu egingo bait dira* (1914). (*La situation et les tâches de l'internationale-socialiste* in *Oeuvres* t. 21, 32-33 or.).

OHAR BATZUK PRAXIAZ

Gerrak eta Iraultzak inperio tsarista, hertsu lotua, puskatu egin zuten, hainbat herri lotzen zuten aginpidea eta Estatu-aparatua birrinduaz. Boltxeveken buruhauste gaitz bat, nazio-arazoari konponbide aurkitzea izango da. Nola antolatu berriro inperioko herri guzi haien arteko harremanak?

Errusia «herri-gartzela» bat zen. Gerrarekin eta Iraultzarekin inperioko herri zapaldu askok beregaintasun nahia agertu zuen, batzuetan independentzia esijitzeraino, beste zenbait kasutan forma federatiboak onartuz. Diferentzia haundiak zeuden demokraten eta sozialisten artean, sozialisten artean bertan (boltxeveke eta mentxeveke artean bereziki), baina baita boltxeveken beren artean ere. Oro har Leninen ikuspideak nagusitu dira eta haietara mugatuko gara hemen.

1. Leninek, nazio-arazoak, *proletargoaren garaitzapenerako medio eta pretestu* bezala ikusten eta baloratzen ditu:

Inperialismoaren garaian zapalkuntza nazionala sendotzeak sozial-demokraziari eskatzen diona, ez da, burgesiak nahi lukeen bezala, nazioen separatzeke askatasun borroka «utopikoari» uko egitea, baizik eta, alderantziz, arlo honetan sortu diren konfliktuak ere, burgesiaren aurkako masa-ekintzetarako eta ekinaldi iraultzaileetarako pretestu bezala erabiltzea (1916). (*La Révolution socialiste et le droit des nations à disposer d'elles-mêmes* in *Oeuvres*, t. 22, 158 or.).

2. Garaitu eta gero, edo garaitu ala, gizarte berriari eman behar zitzaion egitamuaren arazoa sortzen zen. Lenin, ikusi dugu, federazioaren kontra-ria zen, arras zentralismoaren aldekoa. Baina Iraultza ostean federazioaren bidetik edo jo behar izan zen Soviet Batasunean. Federazioa, halare, *fusiorako medio* bezala ikusten eta baloratzen du Leninek. H.d., beti ere nazionalismoa gogor kondentatuko eta borrokatuko da, nazioen asimilaketa/fusioa izango da beti ere azken xedea.

— Gu ez gara inolaz ere nazo txikien (derrigorrez txikiak diren nazioen) aldeko; zalantza izpirik gabe, eta besteak beste, zentralizazioaren alde eta *lotura federatiboan ideal burges-txikiaren aurka* gaude (1914). (*De la fierté nationale des grands-russes* in *Oeuvres* t. 21, 101 or.).

— (Federazioa nazio desberdinetako langileen erabateko batasunerako forma iragankorra da...).

Federazioa, batasun osoa iristeko forma iragankorra izanik, gero eta herstuago izango den batasun federa- lera jo behar dugu derrigor; ondo kontuan izanez, mundu guziko potentzia inperialistek inguratuta, militari indartsuagoak mila bider, errepublika soviatarrek ez daukatela irauterik, errepublika guzien batasun herstu-herstuenaz ez bada: eta, bigarren, errepublika soviatarren artean batasun ekonomiko herstu-herstua derrigor egin beharra dagoela, hori gabe ezinezkoa bait da inperialismoak apurtutako produkzio indarrak bir- jasotzea (1920). (*Première ébauche des thèses sur les questions nationales et coloniales* in *Oeuvres* t. 31, 148 or.).

ADIBIDE BAT ikusiko dugu berriro: Transkaukasiako Errepublikaren hauzia.

Inperio tsaristako herriak orai federazio modura elkarganatu zirela erabakirik ere, federazioa nola egin, hauzia geratzen zen.

Konparaketak beti okerrak eta gogaikarriak izan ohi badira ere, euskal irakurlearen amarez, konparaketa-espikazio modu bat geure historiatic aterako dugu, huzia hobeto ikus dadin. Euskadin badago nazionalismoaren problema bat eta Euskadiko arazoari soluziobide diferenteak asmatu zaiz- kio: independentzia, Estatutua, federazioa, konfederazioa, etab. Proposatu izan den soluzio bat —teknokratena deitu zitzaion— «Iparraldeko eskualde ekonomikoarena» izan zen: h.d., hiru probintziak, Burgos, Logroño, etab., eskualde ekonomiko batetan biltzea. Baina hau, problema politiko baten soluzio *ekonomiko* bat, hots, eskualdekatu behar ekonomikoaren aldetik soluzio bat izan daitekeena (Estatuaren batasun sakratua salbatuz), solu- zio politikorik ba ote da, hots, nazio-arazoaren soluziorik? Leninek, no- lanahi ere, modu horretaratsu garbitu zizun Georgiako nazio-arazoa, haren independentzia ez onartzeaz gainera, federazioa ere oso nolabait ulertuz. Ikus dezagun adibide hau.

Urriko Iraultzarekin Georgia independizatu egin zen. Mentxevikeak nagusitu ziren. Aliatuek *de iure* onartu ere egin zuten 1921eko urtarrilean. Baina Armada Gorria Georgiara sartu zen, otsailaren 21ean errejimene so-

vietarra eraikiatz. Hain zuzen georgiarrak ziren Armada Gorriaren bi bu-ruak: Stalin eta Ordjonikidze. Ikaragarrizko pertsegizioa jasan zuten labo- rari nazionalistek, Elizak, mentxeveikeek eta Alderdiko boltxeveikeek be- raiek ere. Lenin bera sutan jarri zuten Stalinen eta Ordjonikidze-ren izu- garrikeriek. Boltxeveikeen Alderdiak eraman zuen garbiketa eta purga da azpimarkatzekoa. Izan ere, hauek Soviet Batasunean sartzearen aldeko zi- ren; baina Georgiako Errepublika bezala egin nahi zuten hori, ez Ar- menia eta Azerbaidjan-ekin batera, Transkaukasiako Errepublika federala osatuz. Georgiak ez zuen nahi zuena lortu. Ondoko urteetan ez zen, ordea, kontrako oposizioa itzali. 1936ko abenduaren 5ean desegin zen berriro Transkaukasiako Errepublika federala. Geroztik Georgia politikoki Soviet Batasuneko Errepubliketako bat da. Baina, lehen bezalaxe 1920an egin zen banaketaren ondotik, Transkaukasia osoak eskualde ekonomiko ba- karra osatuz jarraitzen du orain ere. (1963az geroztik Soviet Batasuna 19 eskualde ekonomikotan banatuta dago). Transkaukasiako Errepublikaren asmoa ez zen, nolana ere, Stalinena bakarrik izan. Leninek ere horixe bilatzen zuen. Hona hemen:

1921.11.28: Transkaukasiako federazioa sortzeko pro- posamenaren projektua:

1. Onartu behar da, zuzena dela bere printzipioan Trans- kaukasiako errepubliken federazioa, eta derrigorrez egin beharko dela; baina berehalakoan praktikara era- mateko goizegi dela, hau da, eztabaidarako, propagan- darako eta baseko Sovietek onar dezaten eperen bat jarri beharko dela.
2. Georgia, Armenia eta Azerbaidjan-go komite zentra- leei proposatu federazioaren arazoa zabalago eztabaida dezatela Alderdiaren barnean eta laborari eta langile masen artean, *federazioaren aldeko propaganda indar- tsua egin dezatela, eta errepublika bakoitzeko Sovieten Biltzarreak onar dezala bera*; honen aurkako joera go- gorra balitz, *Errusiako Alderdi Komunistaren Komite Zentraleko bulego politikoari* garaiz informe zehatza egin diezaiotela. (*Projet de proposition pour la forma- tion d'une fédération des républiques de Transcauca- sie in Oeuvres, t. 33, 125 or.*).

3. Horiek horrela, chauvinismo errusi-haunditarrak indartsu jarraitu zuen boltxeveikeen artean ere: agintzeko eta gobernatzeko maneretan, nazio txiki- en interesak mespretxatzeko eta hankapetik pasatzeko tradizio klasikoan. De fakto, ideologia internazionalistak indar berri ematen zion chauvinismo errusi-hunditarrari. Leninek etengabeko borroka gogorra egin beharko du haren kontra. Noizpait bere umore ederraz azaldu duen bezala, ha- ginetako minez zegoen batetan adibidez:

1922.10.6. Bulego politikoari txartela.

Hil arteko gerra deklaritzen diot chauvinismo errusi-haunditarrari bertatik. Nire hortz madarikatu honetatik libratzen naizen bezain laster, nire hortz sano hauekintxe irentsiko dut. (*Billet au bureau politique sur la lutte contre le chauvinisme de Grande puissance in Oeuvres*, t. 33, 379 or.).

Problema zail bat printzipio oso zailekin eta formula zailagoekin konpontzeko entseiu bat izan da Leninena. Orai badakigu hori. Euskal Herrian askotan aipatu da, azken urteotan, Leninen azken denboretako «*mea culpa*» sonatua. Leninek frakasatu egin zuela, esaten da, bere nazionalitateen politikan. Dударик ez dagoena, da, geroko desarroiloaren oinarriak berak ipini zituela.

Leninen nazio-politikaren balorapena geuk egin gabe, Leninek berak egingo digu. Leninek inperio tsaristako nazio guzieren batasuna adiskidetasunean eta interes elkartasunean finkatu nahi zuen. H.d., batasun inposatu batetatik borondatezko batasunera igaro. Horretarako, batasun inposatuaren garaiko jokaera, tradizio, estilo, metodoak, aurreritziak eta eskemak, hautsi eta gainditu beharra zegoen. Baina, agian, baita Estatu eta histori (progreso) filosofia ezagun bat ere. Eta, azken finean nazio guzieren asimilaketa/fusioa bilatzen duten ikuspide eta metodoekin, agian nekez egin zitekeen holakorik egin ere. Leninen neurriak, behintzat, ez dirudi aski efektiboak izan zirenik, nazio «alogenoak» inperialismo errusi-haunditar klasikotik begiratzeko:

Uste dut, Errusiako langileen aurrean txit errudun naizela, ez bait naiz nahikoa gogor eta kartsuki aritu autonomiaren arazo famatuan, errepublika sozialista sovietikoen batasunaren arazoan...

Bistan dago, autonomiaren asmo guzi hau funtsean hankasartze bat izan da eta inoportunoa...

Baldintza hauetan normala da, justifikaziotzat balio digun «*batasunetik irtetzeko askatasun*» hori, Errusiako alogenoak benetako errusoarengandik defenditzeko, errusi-haunditarraren, chauvinistaren, hondoan bandido eta zapaltzaile burokrata erruso tipikoaren inbasioaren kontra defenditzeko gauza ez den formula burokratiko hutsa izatea. Horrela ez dago dudarik, langile sovieta arrak eta sovieta arruak, hain eskasak izanik berak, kanaila errusi-haunditarraren, chauvinistaren ozeanoan itoko lirakeela, eulia esnetan bezala (1922). (*La question des nationalités ou de l'«autonomie»*, in *Oeuvres*, t. 36 618-619 or.).

Baina Leninek, ia gaiso, asimilazionismo stalinistaren aurka idatzi zituen oharrok, publikoan ez ziren ezagunak izango XX. Kongresura arte.

J. A.
M. P.

LENIN Y LA CUESTION NACIONAL LENINE ET LA QUESTION NATIONALE

Estas notas, relativas a la teoría leninista de la cuestión nacional, han sido concebidas solamente como mera introducción al problema de las nacionalidades en la Unión Soviética, tal como lo presentarán luego los siguientes capítulos de este número de Jakin. La cuestión nacional varía de carácter y de planteamiento según el sistema político y socio-económico en que se encuadre: es, pues, imprescindible tener siempre presentes las doctrinas —leninistas— de sociedad y de Estado que inspiran las estructuras actuales de la Unión Soviética, marco concreto de las cuestiones nacionales aquí estudiadas. Existiendo ya una bastante amplia literatura vasca sobre leninismo y cuestión nacional, estas notas se limitan a ofrecer una selección de pequeños textos, siguiendo un doble esquema cronológico y temático, que muestren la doctrina leninista sobre la cuestión nacional y su evolución o adaptación en cada momento político: ver indicaciones bibliográficas en el cuerpo del artículo (en francés).

1. Lenín define siempre el principio de autodeterminación: pero el fin que se persigue con ello no es nunca el de la separación, sino el de la unión de los pueblos.

2. La unión de los pueblos es entendida: a) como proceso histórico progresivo de centralización, b) de asimilación y, finalmente, c) de fusión de todos los pueblos. La conclusión será que el socialismo debe deshacer todas las barreras existentes entre los pueblos, contribuyendo a su fusión total.

En la práctica Lenín verá en la lucha de liberación de las naciones oprimidas un medio y un pretexto para la lucha y la victoria del proletariado. Enemigo, en principio, de la federación y partidario acérrimo del más fuerte centralismo, aceptará tras la revolución el sistema federativo: pero considerándolo como transitorio y como medio inicial para ir llegando prudentemente hasta la fusión, fin que se sigue proponiendo como ideal.

Lenín ha reconocido al fin de su vida la debilidad de sus planteamientos para poder hacer frente eficazmente al chovinismo gran-ruso, que seguía amenazando las nacionalidades no rusas de la Unión.

Ces notes, à propos de la théorie léniniste sur la question nationale, ont été conçues comme une simple introduction au problème des nationalités en Union Soviétique, problème que nous allons étudier dans les chapitres suivants de ce même numéro de Jakin.

La question nationale change de caractère, et se pose différemment, suivant le système politique et socio-économique dans lequel elle s'inscrit: il est donc indispensable d'avoir toujours présents à l'esprit les doctrines léninistes sur la société et l'Etat, inspirées par les structures actuelles de l'Union Soviétique, cadre concret des questions nationales étudiées ici.

Etant donné qu'il existe une littérature basque assez riche sur le léninisme et le problème national, ces notes se limitent à offrir un choix de textes, suivant un double schéma chronologique et thématique, qui expose la doctrine léniniste sur le problème national, son évolution ou adaptation à chaque moment politique: voir indications bibliographiques dans le corps de l'article (en français).

1. Lénine défend toujours le principe d'autodétermination; mais le but poursuivi n'est jamais celui de la séparation des peuples, bien au contraire, c'est celui de leur union.

2. L'union des peuples est comprise: a) comme un processus historique progressif de centralisation, b) d'assimilation, et, finalement, c) de fusion de tous les peuples.

La conclusion étant que le socialisme doit détruire toutes les barrières existantes entre les peuples, contribuant ainsi à leur fusion totale.

Dans la pratique Lénine voit dans la lutte de libération des nations opprimées, un moyen et un prétexte pour la lutte et la victoire du prolétariat. Ennemi, en principe, de la fédération, et partisan acharné du centralisme le plus fort, il acceptera, après la Révolution, le système fédératif; tout en le considérant comme un fait transitoire, et comme moyen initial pour arriver prudemment à la fusion, fin qui demeure toujours idéale.

Lénine a reconnu, à la fin de sa vie, la faiblesse de ses prises de positions pour pouvoir faire face de manière efficace au chauvinisme grand-russe, qui continuait de menacer les nationalités non russes de l'Union.